




Azalera handietako salmentak %0,4 handitu ziren

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko maiatza. Indizea




Iturria: Eustat.

Maiatzean, azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %0,4 handitu ziren, aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Bilakaera horri esker, serie historiko osoko mailarik handiena ezarri zuten maiatz baterako. Elikagaien salmentak igotera horretan parte hartu zuen, %2,4ko hazkundearekin, eta gainerako produktuek %3,3 egin zuten behera.

Txikizkako merkataritzak %4,4 gehiago saldu zuen

Txikizkako merkataritza EAEn
Urte bakoitzeko maiatza. Indizea




Iturria: INE.

INEk argitaratutako informazioaren arabera, maiatzean txikizkako merkataritzaren salmentak %4,4 hazi ziren EAEn urte arteko tasan. Azken lau urteetako emaitzarik onena izan da. Bestalde, sektoreak %1,7 handitu zuen enplegua, aurreko hilabeteetako tasak baino pixka bat gutxiago.



Eraikuntzaren kostuak apaldu egin ziren maiatzean

Eraikuntzaren kostuen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Euskadiko eraikuntzaren kostuek hazkundera moteltzeko joerarekin jarraitu zuten, eta %4,2 igo ziren 2022ko hil beraren aldean. Lehen-gaiak %4,9ko gehikuntza izan zuten, eta eskulana, berriz, %2,1 garestitu zen. Bestalde, eraikitze lanen prezioak %4,7 handitu ziren eta obra zibilekoak %2,3.

Estatuko KPIa %1,9an kokatu zen ekainean

Estatuko KPIa
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Ekainean, INEk aurreratu duen adierazlearen arabera, Estatuko KPIa %1,9an kokatu zen, hau da, maiatzean baino 1,3 puntu beherago. Bilakaera horren arrazoi nagusia da erregaien, elektrizitatearen eta elikagaien eta alkoholik gabeko edarien prezioen igoera iazko ekainekoa baino apalagoa izan dela. Halaber, azpiko inflazioa maiatzeko %6,1etik %5,9ra jaitsi zen.